

GETXOKO UDALEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

I. Hitzaurrea

II. Planaren helburuak

III. Aplikazio-eremua

- 1 Eremu subjektiboa
- 2 Eremu objektiboa

IV. Planaren edukiak

1. Iruzurraren, ustelkeriaren, interes-gatazkaren eta irregulartasunaren definizioak
2. Iruzurraren arriskuaren ebaluazioa
3. Iruzurraren aurkako neurriak
4. Jarraipen-prozedurak
5. Interes-gatazkako egoerak prebenitzea eta zuzentzea
6. Kontsulten eta salaketen kanala
7. Iruzurra kontrolatzeko organoa
8. Berrikuspena eta eguneratzea.

V. Eranskinen aurkibidea

I. HITZAURREA

Europako Kontseiluak 2020ko ekainaren 21ean Next Generation EU programa sortzea onetsi zuen; koronabirusak eragindako krisiari erantzuteko ekonomia suspertzeko tresna da hori. Berreskurapenerako eta Erresilientziarako Mekanismoa (BEM), 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritakoa, da Berreskuratze Funts horren muina. BEMk lau helburu ditu: EBren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzea; estatu kideen erresilientzia eta doikuntza-gaitasuna indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak arintzea; eta trantsizio ekologiko eta digitalak babestea. Helburu horiek lortzeko, estatu kide bakoitzak Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionala diseinatu du, helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren erreformak eta inbertsio-proiektuak barne hartuta. Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak (aurrerantzean, BEEP) zeharkako lau ardatz ditu, 10 palanka politikatan egituratzen direnak; eta horien barruan hogeita hamar osagai jasotzen dira, Planaren inbertsio- eta erreforma-programa koherenteak antolatzeko aukera ematen dutenak. Lau ardatz horiek honakoak dira: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta genero-berdintasuna.

BEEPn proposatutako ekimenak gauzatzeko, administrazio publikoek kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitu behar dituzte. Arintze-neurri batzuk Administrazio Publikoa modernizatzeko eta BEEP betearazteko premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarri ziren. Gainera, kudeaketa-sistema bat eratu eta garatu behar da, Europako Batzordearen Zerbitzuei ordaintzeko eskaerak modu eraginkorrean izapidetzea errazteko. Horretarako, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onetsi da; horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratu da.

Bere aurreikuspenen artean, 6. artikulua ezartzen eta garatzen duen betebeharra nabarmentzen du; izan ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren —BEM ezartzen duenak— 22. artikulua Espainiari ezartzen dizkion betebeharrak betetzeko (Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, BEMko funtsen onuradun den aldetik), BEEPeko neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok «luzurraren aurkako neurrien plana» eduki beharko du; plan horrek bermatu eta adierazi ahal izateko dagokion jarduketa-eremuan dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla (bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeari dagokionez).

Ondorio horietarako, kasu bakoitzean dagokion erakunde betearazlea edo organo kudeatzailea den aldetik, Getxoko Udal honek Iruzuraren aurkako Neurrien Plana dauka. Plan horren edukia jarraian dago jasota. Plan horren helburua da iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako gaietan aplikatu eta bete beharreko printzipioak eta arauak ezartzea eta interes-gatazkak saihestea, BEMtik datozen funtsei dagokienez. Era berean, inflexio-puntua da, Udal honek kudeatzen dituen gainerako baliabide publikoen kudeaketan modu egonkorrean hartu beharreko erreferentzia-eredu gisa.

Plan hori iruzurraren aurkako zikloa deiturikoaren funtsezko lau elementuen inguruan (hau da, prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta pertsegitzearen inguruan) egituratzen da; eta BEMtik datozen funtsen kudeaketan esku hartzen duten organo eta langile guztiei aplikatuko zaie.

II.PLANAREN HELBURUAK

"Iruzuraren aurkako Neurrien Plan" honen azken helburua da bermatzea eta deklaratzeko Getxoko Udalak —erakunde betearazle edota organo kudeatzaile gisa, Espainiako Ekonomiaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) neurrien betearazpenean parte hartzera deituak— Berreskurapenerako eta Erresilientziarako Mekanismotik (BEM) datozen funtsak erabiliko dituela. Mekanismo hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak —2021eko otsailaren 12koak— arautua dago, arau aplikagarriekin bat etorri (bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeari dagokienez).

Planaren berehalako helburua Udalak iruzurrarekiko, ustelkeriarekiko, eroskeriarekiko eta interes-gatazkekiko duen zero tolerantzia islatzea da; horretarako, horien prebentziorako, detekziorako eta kudeaketa goiztiarrerako prozedurak arautuko ditu eta erabakiak hartzean benetako kultura etikoa sustatuko du.

Plan honek, era berean, argi eta garbi adierazten du Udaleko gobernu-organoren konpromisoa eta laguntza, modu batean edo bestean sustatzen, kudeatzen edo parte hartzen duen jardura guztietan betetze-kultura sustatzeko.

III. APLIKAZIO-EREMUA

III. 1 Eremu subjektiboa

Plana nahitaez bete behar dute Udalean edo haren mendeko edozein erakundetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenek (karrerako funtzionarioek, bitarteko funtzionarioek, lan-kontratudun langileek —kontratu finkoa, mugagabea edo aldi baterakoa dutenek—) edo behin-behineko langileek, bai eta Udaleko gobernu-organoetako kideek edo haren mendeko erakundeetako kideek ere; guztiak **hartzaile** gisa kalifikatuak.

Udalak espero du hartzaile guztiek (Udalean duten posizioa, titulua edo kargua gorabehera) iruzurra, eroskeria edo ustelkeria kasu bat izan daitekeen edozein jardura susmagarriren aurrean adi egongo direla eta horren berri proaktiboki emango dutela.

Era berean, Udalak bere eginkizunak garatu eta gauzatzeko eta zerbitzu publikoak emateko hirugarrenen (besteak beste, entitateak, erakunde eta instituzio publiko edo pribatuak, hornitzaileak, kontratistak, azpikontratistak edo laguntzaileak —**hirugarrenak** izenez ezagutzen dira—) esku-hartzea eta parte-hartzea behar dela oinarri hartuta, Plan honi atxiki beharko zaizkio, Udalarekin edozein motatako harremana hasi eta mantendu ahal izateko.

Hartzaileek, hirugarrenekin (eta, bereziki, agintari eta erakunde publikoekin) dituzten harremanetan, Plan honetan jasotako iruzurraren aurkako konpromisoekin eta iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko estatuko eta nazioarteko xedapenekin bat etorri jardungo dute.

III.2 Eremu objektiboa

Plana Udalak edo haren mendeko erakunde autonomo, sozietate eta fundazioetako edozeinek sustatutako, izapidetutako eta beste edozein modutan kudeatutako edo partaidetutako finantziazio-eragiketa guztiei aplikatuko zaie; bereziki, EBren funtsekin zuzenean edo zeharka lotutakoei.

IV.PLANAREN EDUKIAK

Adierazitako helburu guztiak Planean bertan jasotako eduki hauen bidez gauzaten dira.

1. IRUZURRAREN, USTELKERIAREN, INTERES-GATAZKAREN ETA IRREGULARTASUNAREN DEFINIZIOAK.

Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauarekin (PIF Zuzentaraua) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduarekin —Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplika dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoarekin (EBren Finantza Erregelamendua)— bat etorritz, iruzurraren definizioa honako sistematizazio honen esparruan egiten da; eta kontuan hartuta, Plan honen ondorioetarako, “funtzionario” kontzeptua zuzenean lotuta dagoela Zigor Zuzenbidearen bidez Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 4.4 artikuluan egindako kontzeptu horren deskribapenarekin:

1.1. IRUZURRA

1.1.1 Gastuen arloan, iruzurtzat hartzen da honako hauen inguruan nahita egindako ekintza edo ez-egite oro:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea; baldin eta Europar Batasunaren aurrekontu orokorretik edo Europar Batasunak edo bere kontura administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak edo aktiboak, bai eta Udalak berak kudeatutakoak ere, bidegabe jasotzen edo atxikitzen badira.
- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea.
- Funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea (funtsak desbideratzea), hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako.

1.1.2. Kontratu publikoekin lotutako gastuen arloan (egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi-asmoz egiten direnean behintzat) honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea; baldin eta Europar Batasunaren aurrekontuko edo Europar Batasunak administratutako aurrekontuetako funtsak edo aktiboak, edo horien izenean daudenak, bai eta Udalak berak kudeatutakoak ere, bidegabe erabiltzen edo funtsik gabe atxikitzen badira.

- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betezea.
- Funtsekin edo aktiboen erabilteko behar ez bezala erabiltzea (funtsekin desbideratzea) hasierako emakida eragin zuten helburuez bestelakoetarako eta Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten badie.

1.1.3. Diru-sarreraren arloan, honako hauei buruzko nahita egindako edozein ekintza edo ez-egitea:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta Europar Batasunaren aurrekontuko edo Europar Batasunak administratutako aurrekontuetako edo haren izenean dauden aurrekontuetako baliabideak eta Udalak berak kudeatutakoak legez kanpo murrizten badira.
- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betezea.
- Legez lortutako onura bat ondorio berarekin bidegabe erabiltzea.

1.2. USTELKERIA AKTIBOA

Plan honen ondorioetarako, ustelkeria aktibotzat hartzen da funtzionario bati, berarentzat edo hirugarren batentzat, zuzenean edo bitartekari baten bidez, edozein motatako abantaila hitzematzen, eskaintzen edo ematen dion pertsona ororen ekintza, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak betetzeko jardun dezan edo ez dezan jardun, Europar Batasunaren edo Udalaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egin ahal izateko moduan, erakunde betearazlea edota funtsekin kudeatzen dituen organoa den aldetik.

1.3. USTELKERIA PASIBOA

Plan honen ondorioetarako, honako hau hartzen da ustelkeria pasibotzat: funtzionario baten ekintza, zuzenean edo bitartekari baten bidez, edozein motatako abantailak eskatzen edo jasotzen dituen, berarentzat edo hirugarrenentzat, edo abantaila baten promesa onartzen duena, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak betetzeko jardun dezan edo ez dezan jardun, Europar Batasunaren edo Udalaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egin ahal izateko moduan, erakunde betearazlea edota funtsekin kudeatzen dituen organoa den aldetik.

1.4. INTERES-GATAZKA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 61. artikuluan xedatutakoaren

arabera (Erregelamendu hori Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplika dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoa da —Finantza Erregelamendua—), Plan honen ondorioetarako interes-gatazka egongo da kasu honetan: «finantza-eragileek eta aurrekontua gauzatzen zuzenean, zeharka eta modu partekatuan parte hartzen duten gainerako pertsonak, bai eta kudeaketan parte hartzen dutenek ere (baita prestaketa-egintzetan, auditoretzan edo kontrolean ere), beren eginkizunak inpartzialki eta objektiboki betetzea arriskuan ikusten dutenean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politikoko edo nazionalako arrazoiengatik, interes ekonomikoko arrazoiengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik». Kontuan hartu behar da:

- Udalaren aurrekontuko administrazio- eta eragiketa-partida guztiei aplika dakiekeela, baita kudeaketa-metodo guztiei ere.
- Edozein interes pertsonal (zuzena edo zeharkakoa) barne hartzen duela.
- Balizko interes-gatazkatzat «jotzen» den edozein egoeratan jardun egin behar dela.

Getxoko Udaleko edozein mailatako agintariek balizko interes-gatazkek saihestu edota kudeatu behar dituzte.

1.5. IRREGULARTASUNA

Plan honen ondorioetarako, eta Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 Erregelamenduko 1.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, irregulartasuntzat jotzen da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokion Erkidegoko zuzenbideko xedapen baten arau-hauste oro; baldin eta arau-hauste horrek Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari edo Udalaren aurrekontuari kalte egitea eragiten badu edo kalte egitea eragingo balu, dela Europar Batasunaren kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen sarrerak murriztuz edo kenduz, dela gastu bidegabe baten bidez. Asmoa da iruzurra eta irregulartasuna bereizten dituen faktorea.

2. IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN ARRISKUAREN EBALUAZIOA

Udalak konpromisoa hartu du proiektuen kudeaketan iruzurrarekin, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako arriskuak gauzatzeko moduko jarduerak identifikatzeko.

Udalak iruzurraren arriskuaren, eraginaren eta probabilitatearen ebaluazioa egin du. Eta aldian-aldean berrikusiko du; eta, nolana ere, iruzur-kasuren bat

detektatu denean (dela Udalean bertan, dela beste udal batzuetan izandako iruzur-kasuen berri duenean baldin eta iruzur horiek Udalean berriz gertatu badaitezke), edo araudian, prozeduretan edo kudeatzailetan aldaketa esanguratsuak gertatzen badira.

Diseinatutako arriskuen mapak eskema honi jarraitu behar dio: arriskuaren kokapena Udalaren antolaketa-egitura zehatzean (arlotan, zerbitzu eta sailetan); eta arriskuaren balorazioa, Udalak zentzuz aurreratu dezakeen gertatzeko probabilitatean eta inpaktuan oinarrituta. Iruzurraren, ustelkeriaren eta eroskeriaren arriskua proiektu guztien kudeaketan hipotetikoki beti presente dagoela onartuta.

Iruzurra kontrolatzeko kide anitzeko organoak, aldian-aldian, arriskuen analisia berrikusiko du, identifikatutako arriskuak baloratuko ditu, eta dauden kontrolen diseinuaren eta eraginkortasunaren egokitasuna baloratuko du. Ebaluazio hori hainbat iturri formal eta informaletan oinarrituta egingo da, eta Europako jardunbide onenei jarraituz.

Bereziki, BEEP gauzatzeko funtsezko proiektuetan iruzur-arriskua izateko arriskuaren, haren inpaktuaren eta haren probabilitatearen ebaluazioa dokumentatu egingo da; eta horretarako, HFP/1030/2021 Aginduaren II.B.5 Eranskinaren arabera garatutako gutxieneko estandarrari buruzko **Autoebaluazio-galdetegia** bete beharko du arlo sustatzaileak. (**I. Eranskina**)

3. IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIAK

Plan honek modu proportzionatuan egituratzen ditu Udalaren iruzurraren aurkako neurriak, iruzurraren aurkako zikloa deiturikoaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta pertsegitzea.

3.1 Prebentzio neurriak

Prebentzioa sistemaren funtsezko alderdia da; interes-gatazka, iruzurra edo ustelkeria gertatzea saihesten baitu. Kontuan hartuta zaila dela iruzurrezko portaera frogatzea eta horrek eragindako kalteak konpontzea, hobe da iruzurrezko jarduera prebenitzea, jarduera hori gertatu denean jardutea baino.

Hala, Udalak prebentzio-neurri hauek hartzeko konpromisoa hartzen du:

- lruzurraren eta ustelkeriaren aurkako adierazpen instituzionala

lruzurraren aurkako adierazpen instituzional bat egitea, hartzaileen artean zabalduz (intranetean edo web orrian argitaratuz edo bakoitzari mezu elektronikoa bidaliz), argitalpen horren berri emateko; mezu horretan argitalpen horretarako esteka bat sartuko da.

Adierazpen instituzionala Plan honen edukien lehenengo atalean dago jasota.

- Interes-gatazkak prebenitzeko politika

Balitzko interes-gatazkaren prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentu bat egitea. Bertan, hartzaileei informazioa emango zaie interes-gatazken modalitateei buruz, hori saihesteko moduei buruz eta gai horri buruz indarrean dagoen araudiari buruz; eta balitzko interes-gatazkarik hautemanen gero jarraitu beharrezko prozedura jasoko da.

Plan honen edukien seigarren atalean, balitzko interes-gatazka tratatzeko berriazko prozedura garatu da.

- Opari politika

Agiri bat egitea, hartzaileek ohiko erabileretatik (sozialak edo kortesiazkoak) haratago doazen opariak edo arretak onartzea debekatzeko; ezta Udalar bere eginkizunak eta erantzukizunak garatzea baldintzatu dezaketen mesedeak edo zerbiztuak baldintza onuragarrietan onartzeko ere. Hartzaileen artean zabalduko da, intranetean edo web orrian argitaratuz edo bakoitzari mezu elektronikoa bidaliz, politikaren berri emateko.

II. Eranskin gisa erantsi da opari politika hori.

- Kode etikoa

Udalak kode etiko bat zabalduko du, hartzaileei aplikatu dakizkiekeen balioak, printzipioak eta jokabide-arauak jasoko dituen. Kode horri zabalkundea emango zaio intranetean edo web orrian argitaratuz edo bakoitzari mezu elektronikoa bidaliz, argitalpen horren berri emateko; eta mezu horretan argitalpen horretarako esteka bat sartuko da.

Getxoko Udalaren jokabide-kode etikoa III. Eranskin gisa erantsi da.

- Kontsulten eta salaketen kanala

Europako funtsei eragiten dieten iruzurrei edo irregulartasunei buruzko informazioa jakinarazteko kontsulta- eta salaketa-kanal bat dagoela jakinaraztea hartzaileei, intranetean edo web orrian argitaratuz edo bakoitzari mezu elektronikoko bat bidaliz argitalpen horren berri emateko; bai eta Europar Batasunetik datozen funtsen kontura osorik edo partzialki finantzatutako proiektu edo eragiketei dagokionez iruzurra edo irregulartasuna eragin dezaketen gertaeren berri duten pertsonak nola jardun dezaketen jakinaraztea ere.

Plan honen edukien seigarren atalean zehatz-mehatz garatzen da kontsulten eta salaketen kanala, bai eta horien funtzionamendua eta bermeak ere.

- Iruzurra kontrolatzeko organoa

Udaleko kide anitzeko organo bat identifikatzea. Iruzuraren aurkako Plana eta bertan jasotako neurriak egin, aplikatu eta horien jarraipena egitearen ondoriozko eginkizunak esleituko zaizkio horri. Halaber, iruzurraren ebaluazioa egiteaz, salaketak aztertzeaz, iruzurra edo ustelkeria izan daitezkeen egoerak ebaluatzeaz eta, hala badagokio, dagokien erakundeei jakinarazteaz arduratuko da; bai eta neurri zuzentzaileak proposatzeaz ere. Organo horri Iruzuraren aurkako Batzordea deituko zaio.

Plan honen edukien zazpigarren atalean Iruzuraren aurkako Batzordearen osaera, funtzioak, erantzukizunak eta funtzionamendu-araubidea garatzen dira.

- Hirugarrenekin behar bezalako arreta izateko prozedurak

Udalak kasu bakoitzean egoki irizitako neurri guztiak ezarriko ditu, bere jardueren garapenean iruzurraren, ustelkeriaren edo eroskeriaren edozein zantzu, alerta edo susmo goiz detektatzeko; bereziki, Udalaren izenean eta haren onurarako jarduten duten edo jardun dezaketen edo bitartekotza egin dezaketen hirugarren aldeekiko harremanetan, edo, edozein modutan ere, proiektuen esparruan harekin harremana duten hirugarrenekiko harremanetan.

Hirugarren bati dagokionez, behar bezalako arreta-prozedurak aplikatu beharko dira, unean uneko inguruabarren arabera; eta, horrela, haien

jarduketa desegoki edo legez kontrako batek eragin ditzakeen arriskuak minimizatu beharko dira.

Hirugarrena hautatzeko prozesuak behar bezala dokumentatuta egon beharko du, eta formalizatu beharreko kontratuaren edukian honako xedapen hauek bete beharko dira:

-Ilatziz jaso beharko da, eta funtsezko baldintzak jaso beharko dira Plan honetan xedatutakoaren arabera.

-Argi eta garbi zehaztuko ditu Udalaren eta hirugarrenaren eskubideak eta betebeharrak, eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko du beti.

- Prestakuntza

Udalak prestakuntza-ekintzak antolatuko ditu hartzailleentzat iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioaren arloan. Gainera, beren ezaugarriak direla-eta, iruzurrarekin, ustelkeriarekin, eroskeriarekin, kapitalak zuritzearekin eta terrorismoaren finantzaketarekin zerikusia izan dezaketen gertaerak edo eragiketak detektatzeko egokiak diren lanpostuetan diharduten langileei bereziki zuzendutako ikastaroak ematea sustatuko du, pertsona horiek trebatuz.

3.2 Detekzio neurriak

- Arrisku-adierazleak (bandera gorriak) eta egiaztapen-zerrenda

Udalaren jarduketa-eremuan iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko arrisku-adierazleen (bandera gorriak) katalogo bat egitea, bandera gorri horietakoren bat hautemanaz gero jarraitu beharreko prozedura zehaztuta.

Bandera gorriak balizko iruzurraren alarma-seinaleak, pistak edo zantzuak dira. Bandera gorria egoteak ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik; baina jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

IV. Eranskin gisa erantsi da balizko **bandera gorri**en zerrenda, iruzurrezkoak izan daitezkeen jardunbideen tipologiaren arabera sailkatuta.

Dagokion espedientean dokumentatuta geratu beharko da, jarduketa-eremuaren arabera, definitu diren balizko bandera gorrien egiaztapen-zerrenda pasatu dela eta lortutako emaitza (hau da, antzeman diren ala ez; eta, hala bada, zeintzuk).

- Integritatearen azterketa

Iruzurraren aurkako Batzordeak espedienteen eta proiektuen integritatea aztertu ahal izango du, arriskuak ebaluatzeko prozesu baten bidez modu independentean hautatuta. Horretarako hautatutako proiektuak sakon aztertu behar dira, debekatutako jardunbideen balizko adierazleak identifikatzeko, aurreko epigrafean aipatutako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokarako arrisku-adierazleen (bandera gorriak) katalogoa kontuan hartuta.

3.3 Zuzenketarako eta pertsegitzeko neurriak

Udalak neurri zuzentzaileen plan bat onetsiko du arriskuen kudeaketa- eta kontrol-egitura berrikusteko, aldatzeko eta egokitzeko; bai eta Plan honetan aurreikusitakoaren arabera ezarritako neurriak, prozesuak eta prozedurak berrikusteko eta aldatzeko ere.

Bereziki, Udalak honako jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

-Udalan gobernantza ona bermatzea eta hartzaileen jokabide etikoa sustatzea.

-Hartzaile guztiei prestakuntza, informazio-saioak eta beste komunikazio-tresna batzuk eskaintzea, iruzurrak eta ustelkeriak Udalarentzat eta herritarrentzat dituzten arriskuei buruz, bai eta iruzurraren aurka hartutako neurriei buruz ere.

-Iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko kontrol eraginkor eta efikazak ezarri eta mantentzea.

-Iruzur edo ustelkeria egintzaren bat eginez gero, ikerketa arduratsua eta bidegabeko atzerapenik gabea egiten dela ziurtatzea; alde batera utzita kargua, zerbitzu-urteak eta susmagarriak Udalarekin eta beste hartzaileekin izan dezakeen harremana.

-Kasu guztietan Udalaren diziplina-ahalaren barruan nahitaezko diziplina-neurriak hartzea, eta, hala dagokionean, legezko ekintzak abiaraztea.

- Iruzurak edo ustelkeriak eragin ahal izan duen kalte ekonomikoa konpentsatzeko ekintza egokiak abiaraztea.
- Hala badagokio, kondenatutako hirugarrenak etorkizuneko kontratazio-prozesuetatik kanpo uztea, aplikatu beharreko araudian aurreikusitako neurrian.
- Antzeko iruzur, eroskeria edo ustelkeria kasuak prebenitzeko sistemak eta prozedurak berrikustea.

4. JARRAI-PROZEDURAK

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da salaketak eta kontsultak jasotzeaz, eta politika honetan adierazitakoaren arabera dagokien izapidetzea emango die.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da irregulartasunari buruzko gertakariak ikertzen hasteaz eta dagokien espedientea izapidetzeaz.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa zuzenean edo zeharka (hirugarrenen bidez) irregulartasunean inplikaturik badago, organo horrek ezin izango du parte hartu hura izapidetzen edo harekin lotutako alderdiren bat lantzen duten bileretan. Informazio guztia Udaleko gobernu-organoren esku jarriko da; organo horrek une horretatik aurrera izapidetu beharko du, eta hirugarrenengana jo ahal izango du horretarako.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak irregulartasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei, eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu. Hartzaile guztiak behartuta daude ikerketan leialki laguntzera. Lekukoak eta kaltetuen esku-hartzea isilpekoa izango da erabat.

Espedientearen izapidetzea amaituta, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak egokitzen dituen duena ebatziko du.

Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hartzaile batek (Udalarekin duen harremanaren izaera gorabehera) irregulartasunen bat egin duela, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak giza baliabideen arduradunari edo dagozkion diziplina-neurriak aplikatzeko eskumena duenari jakinaraziko dio, eta horiek hartu direla eta horien edukiaren berri emango diote Iruzurra Kontrolatzeko Organoari.

Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hirugarren batek irregulartasunen bat egin duela, Gainbegiratze Organoak Lege Arloari jakinaraziko dio, dagozkion kontratu-eskubideak erabil ditzan; eta horren berri emango dio Iruzurra Kontrolatzeko Organoari.

Espedientearen ondorioz agerian geratzen bada legezko jarduketak egin behar direla, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak Zerbitzu Juridikoei jakinaraziko dizkie jarduketak, kasuan kasuko jarduketa administratibo edo judizialak has ditzaten.

Atal honetan jasotako ondorioez eta proiektu bat abian jarri eta lizitatzeko berariak aurreikusitako ondorioez gain, egiaztatzen bada proiektu jakin bati lotutako hirugarren batek politika honetan aurreikusitakoari jarraiki debekatutako jardunbideren bat egin duela kontratazio publikoko prozedura batean edo proiektu bat gauzatzean, Udalak aukera hauek izango ditu:

Debekatutako jardunbidea behar bezala eta berehala zuzentzeko eskatzea bere gustura;

- EBko funtsak itzultzeko eskatzea, hala badagokio; ukituta badaude.
- Hirugarren hori Udalarekin zerikusia duten kontratuak esleitzeko hautagarria ez dela deklaratzeko.
- Udalak kontratu bat emateko eragozpenik ez duela deklaratzeko ukatzea; eta kontratu-neurri egokiak aplikatzea (hala nola etetea eta baliogabetzea).
- Hirugarrenekin egindako eta proiektuekin zerikusia duten kontratuak Udalak ebatzi ahal izango ditu, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:
 - Hirugarren batek deskribatutako kontrolak aplikatzeari uko egitea, kontra egitea edo hura oztopatzea.
 - Hirugarrenak aplikatzekoak diren baldintza-agirian edo oinarri arautzaileetan araututako funtsezko baldintzetako edozein ez betetzea.

5. INTERES-GATAZKAKO EGOERAK PREBENITZEA ETA ZUZENTZEA

Udalaren interesen sustapenak Udaleko interes-gatazken egoeren prebentzioaren buru izan behar du uneoro. Hartzaileek ezin dituzte inola ere beren interes pertsonalak Udalaren interesen aurretik jarri.

5.1 Interes-gatazkari lotutako neurriak

- Prebentzio-neurriak

-Interes-gatazkaren modalitateei eta hori saihesteko moduei buruzko jakinarazpena eta informazioa ematea hartzaileei.

-Prozeduretan parte hartzen dutenei interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) betetzea; betiere kontratazio-organoaren/dirulaguntza ematearen arduradunari, lizitazio/oinarrien edota deialdien agiriak idazten dituzten langileei, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituei, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideei eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoei.

Kide anitzeko organoen kasuan, adierazpen hori dagokion bileraren hasieran egin dezakete bileran parte hartzen duten guztiek, eta aktan jaso beharko da.

-Era berean, IGEA betetzea, laguntza emateko baldintzen barruan interes-gatazka potentziala duten jarduerak egin behar dituzten onuradunek aurkeztu beharreko baldintza gisa.

-Informazioa egiaztatzea merkataritza-erregistroetako datu-baseen bidez, erakunde nazionalen eta EBko erakundeen datu-baseen bidez, langileen espedienteen bidez, edo datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiliz.

-Udalari dagokion barne-araudia zorrotz aplikatzea.

V. Eranskinean IGEA eredia aurkeztu da.

- Detektatzeko eta kudeatzeko neurriak

-Hartzaile guztiak behartuta daude proaktiboki adieraztera norberaren edo besteren, benetako edo balizko, edozein interes-gatazka dagoela, egoeraren berri izaten den unetik, hierarkian gorago dagoenari informazioa berehala emanaz eta luzurraren aurkako Batzordearekin harremanetan jarritz (horri buruzko erabakia ebaluatu, interpretatu eta har dezan, behar diren kontrol-neurriak proposa ditzan eta egoera horien erregistroa egin dezan).

-Udalari dagokion barne-araudia zorrotz aplikatzea.

5.2 Interes-gatazken kasuan jardutea

Hartzaileek interes-gatazka bat ikusten badute, benetakoa zein potentziala, arau hauen arabera jokatu beharko da:

- Interes-gatazkek eragindako pertsonen modu proaktibo eta gardenean deklaratu dute interes-gatazka posible oro.
- Interes-gatazkek eragindako pertsonen ez dute informazio konfidentziala eskuratuko.
- Interes-gatazkek eragindako pertsonak abstenitu egingo dira eztabaidetan eta erabakiak hartzean.
- Interes-gatazkek eragindako pertsonen interes-gatazkek konpontzen lagunduko dute.
- Interes-gatazkan dauden gobernu-organoko kideek berehala jakinarazi beharko diete egoera hori organoko gainerako kideei eta Iruzzurren aurkako Batzordeari.

6. KONTSULTEN ETA SALAKETEN KANALA

6.1 Udal kanala

Jokabide txarraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo beste edozein urraketa etikoren susmoak modu konfidentzial eta babestuan jakinarazteko aukera bermatzen du Udalak. Horretarako, Udalak konpromisoa hartzen du kanal etiko bat ezartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera.

Hartzaileek nahitaez eman behar dute Plan hau iruzurrezko egintzen edo egintza ustelen ondorioz ez betetzea edo urratzea eragin dezaketen eta jakinaren gainean dauden edo susmatzen dituzten egintza edo egitate guztien berri. Edozein gorabeheraren berri eman behar da lehenbailehen. Horretarako, Udalak komunikazio-kanal bat jarri du abian, “**Kanal Etikoa**” izenekoa. Honakoa da kanal hori:

Helbide elektronikoa: canaletico@getxo.eus
Posta helbidea: Getxoko Udala. Iruzzurren aurkako Batzordea
Foruak 1, 48992 Getxo, Bizkaia

Era berean, hartzaileek Plana osatzen duten arauetara eta printzipioei buruzko kontsultak bidali ahal izango dituzte Kanal Etikoaren bidez; eta horren irismenari, manuen interpretazioari edo kasu jakin batean aplikatzeari buruzko zalantzak ere jasoko dituzte, zehaztasunik gabe.

Iruzurraren aurkako Batzordearen arduraren ardurak izango da salaketak eta kontsultak izapidetzea. Salaketak Batzordeko kideren bati eragin badiezaiotze, pertsona horrek ezin izango du parte hartu hura izapidetzen, ezta harekin zerikusia duen alderdiren bat lantzen den bileretan ere. Salaketak Iruzurraren aurkako Batzorde osoari eragiten badiotze, Udaleko gobernu-organoa arduratuko da hura izapidetzeaz, eta hirugarrenengana jo ahal izango du horretarako.

Salaketa faltsuak edo ezarritako prozeduren arabera iruzurrezko jardueren edo jardueren ustelen susmoak behar bezala ez salatzea diziplina-neurrien edo bestelako xede izango dira, kasu bakoitzean dagokionaren arabera, salaketa egiten duen pertsona eta Udalarekin duen harremana kontuan hartuta.

Ez dira onartuko ustezko iruzurrezko jarduerak edo jardueren ustelak salatzeagatik errepresaliak eta zigorrak; eta edozein salatzailek Udalaren laguntza eta babeserako eskubidea izango du, errepresalia mota oro saihesteko; hargatik eragotzi gabe salatzaileak nahita edo asmo txarrez egindako faltsutzeetan zehapenak ezartzea.

6.2 Udalez gaindiko kanala

Herritarrek zein enplegatu publikoek, barne-komunikazioko sistemen ahuleziengatik edo eraginkortasunik ezagatik Europako funtsei eragiten dieten iruzur-zantzuak ezagutuz gero, Iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari —gaztelaniarazko siglak SNCA— jakinarazi ahal izango dizkiote zantzu horiek edo ustez iruzurrezkoak diren gertakariak, kanpoko salaketa-kanalaren bidez (**Infrafraude**); baloratzeko eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari behin-behinean jakinarazteko.

Horretarako, jardun susmagarrien edota irregulartasunen jakinarazpenak SNCAk horretarako prestatutako kanalaren bidez egin ahal izango dira, helbide elektronikoa honetan:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>.

7. IRUZURRA KONTROLATZEKO ORGANOA

7.1 Osaera

Iruzurra Kontrolatzeko kide anitzeko organo bat izango du Udalak, Iruzuraren aurkako Batzordea izenekoa, iruzur-kasu susmagarriak aztertzeko eta horien jarraipena egiteko prozesu egokiak ezarri eta garatzeko. Alkateak/Presidentetzak horretarako izendatzen dituen pertsonak osatuko dute organo hori.

7.2 Eginkizunak

Iruzuraren aurkako Batzordeari eginkizun hauek dagozkie:

-Plan honen garapena, ezarpena, funtzionamendua, eraginkortasuna eta betetzea gainbegiratzea.

-Iruzurrezko egintza eta jokabideak egitearekiko "zero tolerantzia" printzipioan oinarritutako prebentzio-kultura sustatzea.

-Arriskuen ebaluazioa zuzentzea.

-Udalaren barruan iruzurra, ustelkeria eta eroskeria egitea prebenitzeko arau eta barne-kontrol egokiak onestea proposatzea.

-Hautemandako arriskuen eta arrisku bakoitzari aplikatu dakizkiokeen kontrolen aldizkako ebaluazioa egitea.

-Plan hau modu loteslean interpretatzea; bai eta haren edukiari, aplikazioari edo betetzeari buruz egiten dizkioten kontsultak edo zalantzak ebaztea ere.

-Kontsulten eta salaketen kanala kudeatzea; eta horrekin lotuta egindako jardura guztien erregistroa egitea, dokumentuak kudeatzeko sistema baten bidez, sistemaren funtzionamendua azkar frogatzeko eta gerta daitezkeen akatsak hautemateko aukera emango duena.

-Iruzurrezko jokabidea izan daitezkeen edozein gertakariren inguruan egiten diren barne-ikerketak hastea eta zuzentzea, eta organo eskudunei dagozkion zehapenak ezartzeko proposatzea.

-Plan honetarako egoki diren aldaketak proposatzea.

7.3 Erregimena eta funtzionamendua

Iruzzurraren aurkako Batzordeak independentziaz eta inpartzialtasunez jardun beharko du, eta bere lana ahalik eta arreta eta gaitasun profesional handienaz gauzatu. Horretarako, Iruzzurraren aurkako Batzordeak Udaleko sail eta prozesu bakoitzak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia bilduko du, eskatutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

Iruzzurraren aurkako Batzordeak hirugarrenen laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango du, bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa edo komenigarria dela uste duenean; eta ekimen-askatasuna izango du, ikerketa bat hasi ahal izateko aurretiazko salaketarik edo goragoko baten agindurik egon beharrik gabe, betiere edozein arrazoi dela-eta egokitzat jotzen badu.

Iruzzurraren aurkako Batzordeak isilpean gordeko ditu bere eztabaidak eta erabakiak; eta, oro har, ez ditu ezagutaraziko bere karguan diharduela eskura dituen informazio, datu, txosten edo aurrekariak, ez eta bere edo hirugarrenen onurarako erabiliko ere. Iruzzurraren aurkako Batzordearen konfidentzialtasun-betebeharrak bere horretan iraungo du, nahiz eta kargua utzi.

Iruzzurraren aurkako Batzordea balizko interes-gatazka batean badago, horren berri eman beharko dio gobernu-organoari, eta hark izango du gai horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo gatazkak ebazteko eskumena.

Organoaren deialdia idazkari gisa diharduen kideak egingo du, egoki irizten zaionean eta edozein kidek proposatuta. Iruzzurraren aurkako Batzordearen bilera guztien akta egingo du idazkari diharduenak, eta akta hori bilerara joan diren Batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute.

Iruzzurraren aurkako Batzordeari, halaber, kide anitzeko organoak arautzen dituen administrazio-araudia aplikatuko zaio oro har.

8. BERRIKUSPENA eta EGUNERATZEA

Plan hau indarrean egongo da hura baliogabetzea edo aldatzea onesten ez den bitartean. Berrikuspenak eta aldaketak Iruzzurra Kontrolatzeko Organoak proposatuta egingo dira.

Plana onesteko eskumena duen organoak berak onetsi beharko ditu politika honen aldaketa eta eguneratzeak.

V. ERANSKINEN AURKIBIDEA

| | |
|------|---|
| I. | Arriskua autoebalutzeko galdetegia. HFP/1030/2021 Aginduaren II.B.5 eranskina |
| II. | Opari politika |
| III. | Jokabide-kode etikoa |
| IV. | Bandera gorriak. Iruzzurrezkoak izan daitezkeen jardunbideen tipologia. |
| V. | Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) |

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa>) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitala, ezkerrean ageri denegiaztapen-kode segunua erabiliz.

Cod. Validación: GET/DEK/2022/1480 ITtp9Z9i



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Finmado: NURIA HERNANDEZ SOTO (KONTUHARTZALE NAGUSIA / INTERVENTORA GENERAL) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA (Ogasun, Ekonomia-Susapen eta Giza Baliabideetako ordezkaria / Delegado del área de Hacienda, Promoción Económica y RRH) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
AMALIA AGUIRRE MUÑOZA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2022/04/06 Fecha: 06/04/2022

Cod. Validación: GET/DEK/2022/1480 IITnp9Z9j

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legazko balioa du. Getxoko Udaleren web-orrialdeak (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

I. ERANSKINA. ARRISKUA EBALUATZEKO OINARRIZKO GALDETEGIA

Autoebaluazio hau irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan eratu da. Agindu horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema **nahitaezko jarduketa** gisa eratu da organo kudeatzailearentzat.

HFP/1030/2021 Aginduaren II.B.5 Eranskinak gutxieneko estandarrari buruzko autoebaluazio-galdetegi bat jasotzen du:

| Galdera | Betetze-maila | | | |
|--|---------------|---|---|-----------|
| | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 1. Ba al dago «Iruzuraren aurkako neurrien plan» bat, erakunde betearazleak edo erakunde erabakitzaileak bermatu eta deklaratu ahal izateko, dagokion jarduketa-eremuan, dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez? | | | | |
| 2. Egiaztatzen al da dagokion «Iruzuraren aurkako neurrien plana» dagoela betearazpen-maila guztietan? | | | | |
| Prebentzioa | | | | |
| 3. Ba al du iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen duen adierazpenik, maila gorenean? | | | | |
| 4. Autoebaluazio bat egiten al da berriazko arriskuak, horien inpaktua eta horiek gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta berrikusten al da aldian-aldian? | | | | |
| 5. Kode etiko bat zabaltzen da eta opari-politikari buruzko informazioa ematen da? | | | | |
| 6. Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra hautematea errazten duen prestakuntzarik ematen al da? | | | | |
| 7. Interes-gatazkak tratatzeko prozedurarik egin al da? | | | | |
| 8. Betetzen al da esku hartzen duten guztiek interes-gatazkarik ez dutela dioen adierazpenik? | | | | |
| Detektatzea | | | | |
| 9. Zehaztu al dira iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie detektatzeko moduan langileei? | | | | |
| 10. Datuak aztertzeko edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen dira? | | | | |
| 11. Ba al dago edozein interesdunek salaketak aurkeztu ahal izateko biderik? | | | | |
| 12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratzen den unitaterik? | | | | |
| Zuzenketa | | | | |
| 13. Iruzuraren eragina ebaluatzen da eta sistemikotzat edo puntualizat jotzen da? | | | | |
| 14. Erretiratzen al dira iruzurraren eraginpekoak diren eta BEMk finantzatutako edo finantzatu beharreko proiektuak edo horien zatia? | | | | |
| Pertsegitzea | | | | |
| 15. Gertatutakoak eta hartutako neurriak jakinarazten al zaizkie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritzaren arduradunari, dagokionaren arabera? | | | | |
| 16. Salatzen dira, dagozkion kasuetan, zigortzeko moduko egitateak Estatuko edo Europar Batasuneko Agintari Publikoen aurrean edo fiskaltzaren eta eskumendun auzitegien aurrean? | | | | |
| Puntu guztizko partziala. | | | | |
| Puntuak guztira. | | | | |
| Gehieneko puntuak. | | | | 64 |
| Puntu erlatiboak (guztizko puntuak/gehieneko puntuak). | | | | |

Oharra: 4 gehieneko betetzearen baliokidea da; 1, gutxienekoaren baliokidea.

II. ERANSKINA

GETXOKO UDALAREN OPARI POLITIKA

1 .Aplikazio-eremua

Politika hau Udalean edo haren mendeko edozein erakundetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenei (karrerako funtzionarioei, bitarteko funtzionarioei, lan-kontratudun langileei —kontratu finkoa, mugagabea edo aldi baterakoa dutenei—) aplikatzen zaie, edo behin-behineko langileei, bai eta Udaleko gobernu-organotako kideei edo haren mendeko erakundeetako kideei ere; hau da, **hartzaileei**.

2 .Oparien definizioa

Politika honen ondorioetarako, eta adierazpen-ondorioetarako soilik, oparizat hartuko dira edozein motatako ikuskizun edo ekitaldietarako, bidaietarako, lehentasunezko traturako, deskontu berezietarako edo hartzaileei eskaintzen, agintzen edo ematen zaien beste edozein arretarako onura, ondasun, zerbitzu, ordainketa, komisio eta sarrera guztiak.

Mintegietara eta prestakuntza hutsekoak diren jardueretara joatea, bai eta bazkari edo gosari informatiboak ere, ez dira onura pertsonaltzat hartuko; salbu eta, haien kostua, lekua, testuingurua edo prestazio osagarriak direla-eta, helburu horretarako neurritz kanpokoak badira.

3 .Jarduteko arauak

Bere jardun profesionalaren eremuan, hartzaileetako batek ere ez ditu berarentzat edo hirugarrenentzat ohiko erabileretatik (sozialak edo kortesiazkoak) haratago doazen opariak eskatu edo onartuko; eta ez du bere eginkizunen garapena baldintzatu dezaketen mesede edo zerbitzurik baldintza onuragarrietan onartuko. Hartzaileek hirugarren pertsonen edozein interferentzia edo eragin saihestuko dute; baldin eta haien inpartzialtasuna, osotasuna eta objektibotasun profesionala alda baditzakete.

Gainera, hartzaileek zentzuz beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko dituzte, bermatzeko beren hurbileko familia-inguruneak ez duela inolako oparirik (edozein pertsona edo erakunderentzat mesedegarria den tratua susmorik txikiena ere sor dezakeenik) jasotzen.

Hartzaileek ez dute onartuko diruzko edo gauzako ordainsaririk hitzaldiak emateagatik, liburuetan, aldizkarietan edo egunkarietan parte hartzeagatik edo edozein elkarriketa edo eztabaidatan parte hartzeagatik, betiere Udalean dituzten eginkizunekin zerikusia badute.

4 Izaera instituzionaleko opariak

Politika honen ondorioetarako, opari instituzionalak dira egintza ofizial bat dela-eta edo haien izaeragatik hartzaileei eskaini eta ematen zaizkienak. Izaera instituzionaleko opariak Udal Ondarean sartuko dira, aplikatu beharreko legerian aurreikusitako moduan.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdeak (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/1480 ITTnp9ZN9j



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>



Finmado: NURIA HERNANDEZ SOTO (KONTU-HARTZALE MAGUSIA / INTERVENTORA GENERAL) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
Firmado: IÑACIO URRANTE GOROSTIAGA (Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako ordezkaria / Delegado del área de Hacienda, Promoción Económica y RRH) Data: 2022/04/04 Fecha: 04/04/2022
AMALIA AGUIRRE MUÑOZA (ALKATEA / ALCALDESA) Data: 2022/04/06 Fecha: 06/04/2022

Cod. Validación: GET/DEK/2022/1480 IITmp9Z9j

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legeko balioa du. Getxoko Udaren web-orrialdeetik (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen beteakoa kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretik ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

III. ERANSKINA

GETXOKO UDALeko ENPLEGATU PUBLIKOEN JOKABIDE KODEA

Getxoko Udalak jendaurrean adierazi du iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean zero tolerantziako politika. Udalak iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak abian jartzeko prozedurak ditu, hautemandako arriskuak kontuan hartuta. Prozedura horien barruan sartzen da, iruzurra prebenitzeko neurrien artean, Udaleko langileen Jokabide Kode Etiko bat zabaltzea. Kode hau funtsezko tresna da iruzurraren arloko balioak eta jokabideak transmititzeko, enplegatu publikoen jarduera gidatu eta arautzeko balio behar duten printzipioak biltzen baititu.

OINARRIZKO PRINTZIOPIO ETIKOAK

Udaleko langileen eguneroko jarduerak urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 52.etik 54.era bitarteko artikuluetan jasotako printzipio etikoak betetzen direla islatu behar du. Printzipio horiek honako hau ezartzen dute:

VI. KAPITULUA:

Enplegatu publikoen betebeharrak. Jokabide Kodea

52. artikulua. Enplegatu publikoen betebeharrak. Jokabide Kodea.

Enplegatu publikoek arduraz bete beharko dituzte esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari lotuta eta hura betez. Halaber, honako printzipio hauen arabera jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, soiltasuna, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura- eta ingurumen-ingurunearen sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzea. Printzipio horietan oinarritzen da enplegatu publikoen Jokabide Kodea, hurrengo artikuluetan araututako etika- eta jokabide-printzipioek taxutua.

Kapitulu honetan ezarrita dauden printzipioak eta arauak izango dira oinarri enplegatu publikoen diziplina-araubidea interpretatu eta aplikatzeko orduan.

53. artikulua. Printzipio etikoak.

1. Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.

2. Beren jarduketak herritarren interes orokorrak asetzea izango du helburu. Eta inpartzialtasunera eta interes komunera bideratutako kontsiderazio objektiboetan oinarrituko da; alde batera utzita printzipio horrekin talka egin dezaketen jarrera pertsonalak, familiarrak, korporatiboak, bezeroen arlokoak edo bestelakoak adierazten dituen beste edozein faktore.

3. Zerbitzuak ematen dituzten administrazioarekin, nagusiekin, lankideekin, mendekoekin eta herritarrekin leialtasuneko eta fede oneko printzipioen arabera jardungo dute.

4. Beren jokabidea oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetuan oinarrituko da; jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, generoa, sexua, sexu-joera, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazioren bat eragin dezakeen jarduketa oro saihestuz.

5. Abstenitu egingo dira interes pertsonala duten gaietan, bai eta beren lanpostu publikoarekin interes-gatazkak sortzeko arriskua sor dezaketen jarduera pribatu edo interes guztietan ere.



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

6. Ez dute bete behar ekonomikorik hartuko; eta ez dute esku hartuko pertsona edo erakundeekiko finantza-eragiketetan, ondare-bete beharretan edo negozio juridikoetan, horrek beren lanpostu publikoko bete beharrekin interes-gatazka eragin badezake.
7. Ez dute onartuko pertsona fisikoen edo erakunde pribatuen aldetik pribilegioa edo justifikaziorik gabeko abantaila dakarren inolako mesede-traturik edo egoerarik.
8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera jardungo dute, eta interes orokorra lortzen dela eta erakundearen helburuak betetzen direla zainduko dute.
9. Ez dute eraginik izango izapidea edo administrazio-prozedura arrazoi zuzenik gabe arintzean edo ebaztean, eta, inola ere ez, horrek pribilegioa dakarrenean kargu publikoen titularren edo haien hurbileko familia- eta gizarte-ingurunearen mesedetan, edo hirugarrenen interesak kaltetzen dituzte.
10. Arduraz beteko dituzte dagozkien edo agintzen zaizkien zereginak; eta, hala badagokio, epe barruan ebartziko dituzte beren eskumeneko prozedurak edo espedienteak.
11. Zerbitzu publikoan aritzearen printzipioaren arabera gauzatuko dituzte beren eskuduntzak; eta horren aurkako jokabideak ez ezik, zerbitzu publikoak gauzatzean neutraltasuna arriskuan jartzen duen beste edozein jokabide ere alde batera utziko dituzte.
12. Isilpean gordeko dituzte sailkatutako gaiak edo zabaltzea legez debekatuta duten beste gai batzuk. Behar besteko diskrezioa izango dute beren karguagatik ezagutzen dituzten gaien inguruan; eta ezin izango dute lortutako informazioa erabili beren edo hirugarrenen onurarako, edo interes publikoaren kalterako.

54. artikulua. Jokabide-printzipioak.

1. Herritarrek, haien nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak arretaz eta errespetuz tratatuko dituzte.
2. Beren lanpostuari dagozkion zereginak era arduratsuan egingo dira eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dira.
3. Goragokoen jarraibide eta agindu profesionalak beteko dituzte, ordenamendu juridikoa nabarmen hausten dutenean izan ezik; kasu horretan, berehala jakinaraziko dizkiete kasuan kasuko ikuskapen-organoei.
4. Herritarrei informazioa emango diete ezagutzeko eskubidea duten arlo edo gaiei buruz, eta beren eskubideak baliatzeko eta bete beharrek betetzeko erraztasunak emango dizkiete.
5. Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte baliabide eta ondasun horiek erabiliko beren edo hurbilekoen onurarako. Era berean, horiek zaintzeko bete beharra izango dute.
6. Ohiko erabilerez (sozialak eta kortesiazkoak) haratago doan edozein operari, mesede edo baldintza onuragarrietan egindako edozein zerbitzu baztertu egingo da; hargatik eragotzi gabe Zigor Kodean ezarritakoa.
7. Dokumentuen konstantzia eta iraunkortasuna bermatuko dute, ondorengo arduradunei helarazteko eta emateko.
8. Prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta mantenduko dute.
9. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak beteko dituzte.
10. Destinatuta dauden unitatearen eginkizunen garapena hobetzeko egokitzat jotzen dituzten proposamenak jakinaraziko dizkiete beren nagusiei edo organo eskudunei. Horretarako, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko balioko duten enplegatu publiko edo administratuen proposamenak jasotzea zentralizatzeko eskumena duen instantzia egokia sortzea aurreikusitako ahal izango da.
11. Herritarrei arreta eskatzen duten hizkuntzan emango zaiela bermatuko dute, baldin eta lurraldean ofiziala bada.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoa alde batera utzita, kudeaketa, jarraipen edota kontrol lanak egiten dituzten pertsonak, BEEPeke neurrien betearazpenean parte hartzen badute, arreta berezia jarriko dute Etika eta Jokabide Kode hau betetzean BEMko funtsekin finantzatzeko proiektuak kudeatzeko prozeduraren honako alderdi eta fase hauetan:



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

1. Zorrotz beteko da Europar Batasuneko, estatuko edota eskualdeko legeria, kasuan kasuko gaian aplikatzeko, bereziki honako gai hauetan:

- Gastuen hautagarritasuna.
- Kontratazio publikoa.
- Laguntza-erregimenak.
- Informazioa eta publizitatea.
- Ingurumena.
- Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

2. BEMko funtsen kudeaketarekin, jarraipenarekin eta kontrolarekin zerikusia duten enplegatu publikoek gardentasunean oinarrituta beteko dituzte beren eginkizunak. Printzipio horrek argitasuna eta egiazkotasuna dakartza barnean zein kanpoan ezagutarazten den edozein informazio edo daturen tratamenduan eta hedapenean. Printzipio horren arabera, arretaz erantzun behar zaie informazio-eskaerei; hori guztia interes publikoko arrazoiengatik sentikortzat jo daitekeen informazioaren osotasuna inola ere arriskuan jarri gabe.

3. Arreta berezia jarriko da gardentasun-printzipioa betetzeko:

- BEMko funtsen finantzatutako laguntzak emateko prozesuen emaitzak ezagutarazten direnean eta jakinarazten direnean.
- Kontratazio-prozedurak garatzen diren bitartean.

4. Gardentasun-printzipioa betetzeak ez du esan nahi langileek konfidentzialtzat jotzen den informazioa (hala nola, datu pertsonalak edo enpresetatik eta beste erakunde batzuetatik datorren informazioa) behar bezala erabili behar ez dutenik. Hala ere, ezin izango dute erabili norberaren edo hirugarrenen onurarako, edozein mesede-tratu lortzeko edo interes publikoaren kalterako.

5. Interes-gatazka egongo da enplegatu publikoek BEMko funtsekin zerikusia duten eginkizunak inpartzialki eta objektiboki betetzeko, baterako finantzatutako jarduketan onuradunekin familia-arrazoiak, arrazoi afektiboak, kidesasun politikoko arrazoiak, interes ekonomikoko arrazoiak edo beste edozein arrazoi dela-eta arriskuan jartzen direnean. Interes-gatazka bat sortzen da enplegatu publiko batek bere interes pribatuak bere betebeharrak profesionalen aurretik jartzeko aukera izan dezakeenean.

Arreta berezia jarriko da enplegatu publikoek interes-gatazkarik izan ez dezaten; BEMko funtsen finantzatutako eragiketetan, "kontratazio" eta "laguntza publikoak ematea" prozedurei dagokienez.

A) Kontratazio publikoa.

Interes-gatazkarako arriskua identifikatzen bada, honako hauek egingo dira:

- Gertakariak inplikaturako pertsonarekin aztertu, egoera argitzeko.
- Pertsona hori kontratazio-prozeduratik kanpo utzi.
- Hala badagokio, prozedura bertan behera utzi.

Interes-gatazka sortu bada, zehapenen arloko lege-araudia aplikatuko da.

B) Laguntza publikoak.

BEMko funtsekin finantzatutako laguntzak hautatzeko, emateko eta kontrolatzeko prozesuetan parte hartzen duten enplegatu publikoek ez dute parte hartuko interes pertsonala duten gaitan.

Interes-gatazka sortzen bada, zehapenen arloko lege-araudia aplikatuko da.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaren web-orrialdeak (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal dizu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz.

Cod. Validación: GET/DEK/2022/1480 ITTnp9Z9j

KODEAREKIKO ERANTZUKIZUNAK

Etika eta Jokabide Kode honen printzipioak ulertzea eta betetzea BEMko funtsekin finantzaturako eragiketak kudeatu, horien jarraipena egin edota kontrolatzeko funtzioak betetzen dituzten pertsona guztien erantzukizuna da.

Hala ere, komeni da berariazko erantzukizun batzuen xehetasun batzuk eman eta horiek zehaztea, lanbide-profilen arabera.

Langile guztiek betebeharrak hauek dituzte:

- Kodean xedatutakoa irakurri eta betetzea.
- Kolaboratzaileei, hornitzaileei, laguntza teknikoko enpresei, laguntzen onuradunei edo Udalarekin interakzioan diharduen beste edozein pertsonari lan ingurunean zabaltzen laguntzea.

Zerbitzuaren arduradunek, aurrekoek gain, betebeharrak hauek dituzte:

- Kodeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzen laguntzea.
- Hori betetzean eredu izatea.

Zuzendaritza-organismoek langile guztiek Kodearen berri izan dezatela sustatu behar dute, eta Kodea betetzea eta haren aginduak betetzea sustatu behar dute.

IV. ERANSKINA.

Bandera gorriak. Iruzzurrezkoak izan daitezkeen jardunbideen tipologia

Arrisku-adierazle posibleak

Jarraian, arrisku-adierazleen (bandera gorriak) katalogo bat garatu da, Udalaren jarduketa-eremuan iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko. Bandera gorriak balizko iruzurraren alarma-seinaleak, pistak edo zantzuak dira. Bandera gorria egoteak ez du nahitaz esan nahi iruzurra dagoenik; baina jarduera-eremu jakin batek arreata gehigarria behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

1 KONTRATAZIOA

A LIZITATZAILE BATEN ALDE ALDATUTAKO BALDINTZA-AGIRIAK

1. Eskaintza bakarra aurkeztu da edo lizitatzailen kopurua ohi baino txikiagoa da.
2. Antzekotasun egiaztagarria dago kontratazio-prozeduraren baldintza-agirien eta kontratista esleipendunaren zerbitzuen edota produktuen artean.
3. Horri buruzko kezak jaso dira lizitatzailen aldetik.
4. Kontratazio-prozeduraren baldintza-agirietan, aldez aurreko antzeko prozeduretan onetsitakoetatik urrun dauden aginduak jasotzen dira.
5. Baldintza-agiriek ezohiko edo zentzu gutxi duten klausulak dituzte.
6. Botere esleitzailera marka zehatz bat definitzen ari da, produktu generiko baten ordeza.
7. Kontratazio-prozedurari buruzko dokumentazioan informazio- eta publizitate-neurririk ez egotea edota eskaintzak jasotzeko epe nahikorik ez izatea.

B KOLUSIOA LIZITAZIOAN

8. Lizitazioaren emaitzak berekin dakar kontratua handiegia den eskaintza bati esleitzea aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, industriako obra edo zerbitzu antzekoekin edo batez bestekoekin edo merkatuko erreferentziako prezioekin alderatuta.
9. Aurkeztutako eskaintza guztiek prezio altuak dituzte etengabe. Honakoak egiaztatuko lituzke: eskaintako prezioetan lizitatzailen artean lor daitezkeen akordioak.
10. Lizitzaile berriak daudenez, eskaintzak nabarmen jaisten dira.

11. Esleipendunek eskualdearen, lan-motaren, obra-motaren eta abarren arabera txandakatzen dute beren partaidetza. Honakoak egiaztatuko lituzke: lizitatzailen arteko balizko akordioak merkatua banatzeko.
12. Lizitazioan parte hartu zuten azpikontratatistak daude.
13. Ezohiko eskaintza-ereduak daude (adibidez: kontratuaren aurrekontua zehatz-mehatz eskaintzen da; eskaintzen prezioak altuegiak dira, hurbilegiak, etab.).
14. Lizitatzailen arteko konexioen ebidentzia (adibidez: etxebizitza komunak, langileak, telefono-zenbakiak, etab.).
15. Kontratatistak azpikontratastei jakinarazten die lizitatzaille gisa ere parte hartzen dutela.
16. Konpainia batzuk lehian aritzen dira beti, eta beste batzuk ez dira inoiz lehian aritzen.
17. Fikziozko lizitatzailleak daude
18. Zenbait lizitatzaillek informazioa trukutzen dutelako ebidentzia; horrela, akordio informalak lortzen dituzte.
19. Kolusio-probabilitate handiagoa sektore jakin batzuetan: zoladura asfaltikoa, eraikinen eraikuntza, dragatzea, ekipo elektrikoak, teilatua ematea, hondakinak kentzea?

C INTERES GATAZKA

20. Kontratista edo saltzaille jakin bati mesede egiten zaio, inolako azalpenik eman gabe edo ezohiko izaerarekin; edota funtzionario/enplegatuek batek ezohiko jokabidea du bere ardurapean ez dagoen lizitazio-prozedura bati buruzko informazioa lortzeko.
21. Kontratazio-organoko kideren batek lizitazioan parte hartzen duen enpresa batentzat lan egin du, esleipen-erakunde horretan lanpostuan hasi aurretik.
22. Familia-loturaren bat dago kontratazio-organoko funtzionario/enplegatuek baten eta lizitatzaileraren baten artean.
23. Esleipenak behin eta berriz egiten dira lizitatzaille beraren alde.
24. Prezio altuak eta kalitate eskaseko lanak onartzen dira.
25. Kontratazioaz arduratzen diren funtzionarioek/enplegatuek ez dute IGEA aurkezten, edo osatu gabe aurkezten dute.
26. Kontratazioaz arduratzen den funtzionarioak/enplegatuek ez du onartzen kontratazio-prozesuak bertan behera uztea dakarren igoerarik.
27. Kontratazioan parte hartzen duen funtzionarioak/enplegatuek negozio propioak egiten ditu.

28. Harreman sozial bat dago kontratazio-prozesuan parte hartzen duen funtzionario/enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten artean hertsiki arlo profesionala dena baino haratago.

29. Zalantzarik gabe, kontratazioan parte hartzen duen funtzionario/enplegatuaren aberastasuna edo bizi-maila handitu egin da.

D AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK MANIPULATZEA

30. Lizitatzailleen kexak (salaketak, erreklamazioak, etab.) egon dira.

31. Lizitazio-prozeduren kontrol falta edota desegokitasuna dago.

32. Zantzu batzuek agerian uzten dute eskaintzak jaso ondoren horietan aldaketak izan direla.

33. Eskaintza batzuk baztertu egin dira akatsak egon direlako.

34. Zenbait lizitatzaille gaitu baztertu egin dira zalantzazko arrazoiengatik.

35. Eskatutako gutxieneko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso dira; eta, hala ere, prozedurarekin jarraitzen da, eman gabekotzat jo gabe. Edo, bestela, esleitu gabe utzi da prozedura; eta berriro egin da deialdia, baldintza-agiritan agertzen diren irizpideen arabera onargarriak diren eskaintzak jaso arren.

E GASTUA ZATIKATZEA

36. Antzeko helburua duten bi erosketa edo gehiago ikusten dira esleipendun beraren alde, lehia-berme handiagoko prozedurarik ez erabiltzeko helburu bakarrekin.

37. Erosketak arrazoirik gabe banandu dira (adibidez, eskulanaren eta materialen kontratu bereziak), eta biak lizitazio irekiko atalaseen azpitik daude.

38. Erosketa sekuentzialak daude lizitazioen publizitatea egiteko betebeharraren atalaseen azpitik.

F KONTRATUEN NAHASKETA

39. Lan edo kontratu desberdinetan aurkeztutako antzeko fakturak daude.

40. Kontratatik lan bat baino gehiago fakturatu du aldi berean.

G KOSTUEN KARGA OKERRA

41. Lan-kargak gehiegizkoak edo ezohikoak dira.

42. Lan-kargak bateraezinak dira kontratuaren egoerarekin.

43. Itxurazko aldaketak daude denborak kontrolatzeko orrietan.

44. Denborak kontrolatzeko orririk ez egotea.

45. Kontratu bati baino gehiagori egotzitako kostu material berdinak daude.

46. Zeharkako kostuak zuzeneko kostu gisa egozten dira.



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

2 DIRULAGUNTZAK

A LEHIA MUGATZEA

1. Oinarri arautzailei/deialdiei behar besteko zabalkundea ez ematea, eta publizitate- eta gardentasun-printzipioak ez betetzea. Besteak beste, DLOan edota beste hedabide batzuetan ezarritako nahitazko bitartekoak ez betetzeagatik gerta daiteke.
2. Deialdian ez dago argi zehaztuta zer baldintza bete behar dituzten laguntzen/dirulaguntzen onuradunek/hartzaileek.
3. Eskabideak aurkezteko oinarri arautzaileetan/deialdian ezarritako epeak ez betetzea.
4. Baremoak ez dira argitaratu kasuan kasuko aldizkari ofizialetan, emandako dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeenean.
5. Laguntzen onuradunak/hartzaileak ez du lehia bermatzeko betebeharra betetzen hornitzaileekin negoziatu behar badu. DLOren 31.3 eta 29.7 artikulua ez betetzea.

B TRATU DISKRIMINATZAILEA ESKATZAILEAK HAUTATZEAN

6. Onuradunak hautatzean, ez dira betetzen objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Onuradunak hautatzeko ez da irizpide homogeneorik erabiltzen.

C INTERES-GATAZKAK EBALUAZIO BATZORDEAN

7. Nahita eragin da onuradunen ebaluazioan eta hautaketan; horietakoren baten alde eginez, lehentasunezko tratua emanez edo batzordeko beste kide batzuei presioa eginez.

D ESTATUKO LAGUNTZEN ARAUBIDEA EZ BETETZEA

8. Finantzatutako eragiketarako estatu-laguntzak dira, eta ez da jarraitu Europako araudiak horretarako ezarritako informazio- eta jakinarazpen-prozedura.

E DIRULAGUNTZAREN XEDEA DESBIDERATZEA

9. Onuradunak dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako helburua ez betetzea edo ez gauzatzea.

F GEHIGARRITASUN-PRINTZPIOA EZ BETETZEA

10. Eragiketen baterako finantzaketan soberakina dago.
11. Proiektu bera finantzatzen duten baterako hainbat finantzatzaile daude.
12. Hirugarrenek egindako ekarpenen euskarri-dokumentazioa falta da (adibideak: hitzarmenak, dohaintzak, beste izaera bateko diru-ekarpenak, etab.).

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaren web-orrialdeak (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz.

Cod. Validación: GET/DEK/2022/1480 IITnp9Z9j



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

13. Hirugarrenek emandako finantzaketaren finalista izaera falta da, eta ez dago finantzaketa banatzeko irizpiderik.
14. Onuradunak proiektu bakoitzeko gastu eta sarreren kontrolik ez izatea.
15. Onuradunak proiektuari esleitutako gertaera garrantzitsuen edota helburuen kontrolik ez izatea.

G DOKUMENTUAK FALTSUTZEA

16. Eskatzaileek hautaketa-prozesu batean hautatuak izateko aurkeztutako agiri edo adierazpen faltsuak daudela egiaztatu da. Faltsutze hori honako hauei buruzkoa izan daiteke: sinatutako adierazpenak, finantza-informazioa, konpromisoak, etab.; eta ebaluazio-batzordea nahastea eragin dezake.
17. Gastuak justifikatzeko dokumentu-euskarria manipulatu da.

H INFORMAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZ ESTATUKO ETA EUROPAKO ERKIDEGOKO ARAUDIAN EZARRITAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

18. Informazio- eta komunikazio-betebeharrak ez dira bete. Bereziki, estatuko nahiz Europako araugintza-testuetan jasotako betebeharrak.

I AUDITORETZA-PISTA GALTZEA

19. Erakundeak alde batera utzi du auditoretza-pista bermatzeko aukera emango lukeen eragiketaren dokumentazio zuzena.
20. Deialdiak saihestu egiten du eragiketaren ondoriozko gastuak dokumentatzeko modua.
21. Deialdian gastu hautagarrien definizio argi eta zehatza falta da.
22. Deialdian proiektuetan kostuak kalkulatzeko aplikatu beharreko metodoa falta da.

3 ENKARGUAK

A JARDUERA MODU IRREGULARREAN EGIKARITZEA. Bereziki AZPIKONTRATATUA izateagatik

1. Egin beharreko jarduera azpikontratatu da, eta emandako zerbitzuak edo ondasunak espero zen kalitatearen azpitik daude.
2. Enkargua jasotzen duen erakundeak ez du lehia bermatzeko betebeharra betetzen hornitzaileekin negoziatu behar badu.
3. Enkargua jasotzen duen erakundeak ez du lehia bermatzeko betebeharra betetzen azpikontratazioaren kasuan.
4. Azpikontrataturako lanek ez dute betetzen egokia litzatekeen eskulanaren kualifikazioa.

5. Azpikontratistek egin beharreko jarduerak zehaztasunik gabe deskribatzen dira.
6. Azpikontratistek ez dituzte informazio- eta komunikazio-betebeharrak betetzen.
7. Azpikontratistek ez dituzte gastuaren hautagarritasun-neurriak betetzen.
8. Azpikontratistak ez du eragiketaren dokumentazio egokia egin auditoretza-pista bermatzeko.

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/1480 IITnp9ZN9j

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Muniopal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdeitik (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

V. ERANSKINA

Interes-gatazkarik ezaren adierazpen (IGEA) eredia

Betetzeko:

ESPEDIENTEA:

KONTRATUA/DIRULAGUNTZA:

Goian aipatutako kontratazio/dirulaguntza prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatu duenak/dutenek, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuko parte-hartzaile gisa, honako hau adierazi du/dute: Lehenengoa. Honako hauen berri izatea: 1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, afinitate politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik». 2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztiei tratuberdintasuna bermatzea. 3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstentzioa») ezartzen du prozeduran ez dutela esku hartu beharko «hurrengo idatz-zatian adierazitako inguruabarretako bat duten administrazioetako agintariek eta langileek». Honako hauek dira:

a) Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaian edo haren ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunaren administrazioa izatea; edo interesdunen batekin konpondu gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea eta laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administrazioarekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin; edo horien bulego profesional berekoa izatea edo horiekin elkartuta goatea aholkularitza, ordezkari edo mandataritza.

c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea.

d) Dagokion prozeduran peritu edo lekuko gisa parte hartu izana.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoarekin zerbitzu-harremana izatea, edo azken bi urteetan edozein motatako eta edozein egoera edo



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
<http://www.getxo.eus>

lekutan zerbitzu profesionalak eman izana». Bigarrena. Ez dago Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan; eta ez dago harengan lizitazio-/emakida-prozedurari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio-arrazoirik. Hirugarrena. Konpromisoa hartzen du/dute kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera horrek eragiten duen edo eragin dezakeen interes-gatazka edo abstentzio-kausa oro. Laugarrena. Badakit interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak/ondorio administratiboak/ondorio judizialak ekarriko dituela.

DATA ETA SINADURA

IZEN OSOA

NAN

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdeetik (<http://www.getxo.eus/>) administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/1480 IITnp9Zn9j